Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko irailaren 29a, astelehena — 185 — Lunes, a 29 de septiembre de 2025

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gurpilak aldatzeko gaitasun nahikoa duten tailerrak inskribatzeko epearen luzapena.*

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak, 2025eko irailaren 25ean, FA-EP-2025-0372 Foru Agindua eman du. Hona hemen aginduaren edukia:

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak salgaiak errepidez garraiatzeko ibilgailuei pneumatikoak aldatzeko laguntzen deialdi bat aurreikusi du, eta Gobernu Kontseiluaren 2025eko irailaren 23ko bileran onetsi da.

Hori aurreikusita, izena eman nahi zuten Gipuzkoako tailerrak inplikatzea proposatu zen, laguntza-programa berri hau garatzen laguntzeko.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak, 2025eko abuztuaren 11n, FA-EP-2025-0298 Foru Agindua eman zuen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 167 zk., 2025eko irailaren 3koa), salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gurpilak ordezkatzeko gaitasun nahikoa duten tailerrak inskribatzeko prozedura eta inskripzioa egiteko 2025eko deialdia onesten zituena.

Deialdi honen 2. artikuluaren 2. apartatuan, eskaerak aurkezteko modua eta epea jasotzen dira, eta ezartzen da epea 2025eko irailaren 30ean amaituko dela.

Salgaiak garraiatzeko ibilgailuei pneumatikoak aldatzeko laguntzak emateko deialdia argitaratu ondoren, garraioaren sektorearekiko interesa handitzea espero da, eta, beraz, lurraldean tailer gehiago inskribatu ahal izateko,

EBAZTEN DUT

2025eko urriaren 30era arte luzatzea salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gurpilak ordezkatzeko gaitasun nahikoa duten tailerretan izena emateko eskaerak aurkezteko epea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitalpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraz-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Prórroga del plazo para la inscripción de talleres con capacidad suficiente para sustituir las ruedas de vehículos de transporte de mercancías.*

El diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos ha dictado, con fecha 25 de septiembre de 2025, la Orden Foral FA-EP-2025-0372, cuyo contenido se publica a continuación:

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos ha previsto una convocatoria de ayudas para el cambio de neumáticos a los vehículos destinados al transporte de mercancías por carretera, que ha sido aprobada en la reunión del Consejo de Gobierno Foral de 23 de septiembre de 2025.

En previsión de la misma, se propuso involucrar a los talleres guipuzcoanos que quisieran inscribirse para colaborar en el desarrollo de este nuevo programa de ayudas.

El diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos dictó, con fecha 11 de agosto de 2025, la Orden Foral FA-EP-2025-0298 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 167 de 3 de septiembre de 2025), en la que se aprobaba el procedimiento para la inscripción de talleres con capacidad suficiente para sustituir las ruedas de vehículos destinados al transporte de mercancías, así como la convocatoria del año 2025 para realizar dicha inscripción.

En el apartado 2 del artículo 2 de dicha convocatoria, en el que se recoge la forma y plazo de presentación de solicitudes, se establece que el plazo finalizará el día 30 de septiembre de 2025.

En espera de un incremento del interés en el sector del transporte tras la publicación de la convocatoria para la concesión de las ayudas para el cambio de neumáticos a los vehículos destinados al transporte de mercancías, y por tanto, con el objeto de dar opción a que puedan inscribirse un mayor número de talleres en el territorio,

RESUELVO

Prorrogar el plazo de presentación de solicitudes para la inscripción de talleres con capacidad suficiente para sustituir las ruedas de vehículos de transporte de mercancías hasta el día 30 de octubre de 2025.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas o entidades interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso administrat/vo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación En este caso; no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta

EK\CV GAO-I-2025-06657

tertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko irailaren 25a.—Unai Andueza Iraeta, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatua. (6657)

que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 25 de septiembre de 2025.—El diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, Unai Andueza Iraeta (6657)